e) Sustapen soziokulturalerako planak eta, hezkuntza, kultura eta gizarte ikuspegietatik aisialdia sustatzeko egitasmoak burutzea.

f) Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioari dagokion zuzeneko jarduerak burutzea arlo hauetan:

- Gazteentzako informazioa eta dokumentazioa, haur eta gazteentzako aterpe-etxeak, gazteentzako turismoa eta gazteentzako gainerako zerbitzuak.

- Gazteentzako Europako egitasmoak eta gazteen arteko trukeak.

- Gazterari eta gizarte ekintzari dagokienez bete beharreko gaitzazko zeregin guztiak.

g) Haur eta gazteen aisialdiko hezkuntzan, dinamizazio soziokulturean eta haur eta gazteei zerbitzuak ematen dizkieten zentroetan lan egiten duten pertsonen ezaugarriak zehaztea eta horien prestakuntza bultzatzea.

h) Boluntariotza eta komunitate-garapena sustatzea eta haur eta gazte elkarten sorrera bultzatzea.

i) Guztion intereseko jardueretan, Estatuko, Europako eta nazioarteko erakundeekin lankidetzan aritzea.

j) Oro har, aurreko idatz-zatietan aipatutakoekin zerikusia duten funtzioak betetzea.

2.– Euskal Autonomia Erkidegoko Gazte Informazio eta Dokumentaziorako Zentro Koordinatzailea Gazteria eta Gizarte-Ekintza Zuzendaritzari atxikita egongo da. Zuzendaritza horrek berak beteko ditu Euskal Autonomi Erkidegoko Gazte Planaren barruan dauden Gazteen Euskal Behatokiaren funtzioak ere.

3.– Gazteria eta Gizarte-Ekintza Zuzendaritza izango da Euskal Autonomi Erkidegoko Administrazioaren eta Euskal Autonomia Erkidegoko Gazteriaren Kontseiluaren arteko harremanak zuzendu eta bideratuko dituen. Beraz, Gazteria eta Gizarte-Ekintza zuzendaria izango da Eusko Jaurlaritzaren ordezkaria, maiatzaren 27ko 6/1986 Legearen 14. artikuluan ezarritakoaren ondorioetarako.

a) Impulsar, en colaboración con otras instituciones públicas y agentes sociales, políticas orientadas a posibilitar una adecuada inserción de las personas jóvenes en la sociedad.

b) Desarrollar el Plan Joven de la Comunidad Autónoma de Euskadi, ejerciendo las labores de Secretaría de su Junta Rectora y la coordinación de los grupos de trabajo que la referida Junta Rectora constituya.

c) Recoger y difundir la información y documentación que pueda dar cuenta de la situación del mundo juvenil, así como realizar las investigaciones y estudios que al respecto se consideren oportunos.

d) Elaborar los proyectos normativos en materia de política de infancia y juventud, desarrollo comunitario, y ocio y esparcimiento, de tales sectores.

e) Elaborar planes de promoción sociocultural y los destinados a fomentar la utilización social, cultural y educativa del ocio.

f) Ejercer las funciones de acción directa que a la Administración de la Comunidad Autónoma correspondan relativas a:

- Información y documentación juvenil, albergues e instalaciones para la infancia y la juventud, turismo juvenil y demás servicios a la juventud.

- Programas europeos para la juventud e intercambios juveniles.

- Cuantas otras correspondan en el ámbito de la juventud y de la acción comunitaria.

g) Impulsar la formación y definir el perfil de las personas que trabajan en la educación de tiempo libre infantil y juvenil, en la dinamización sociocultural y en los centros de prestación de servicios a la infancia y a la juventud.

h) Promocionar el voluntariado, el asociacionismo infantil y juvenil y el desarrollo comunitario.

i) Cooperar con organismos públicos estatales, europeos e internacionales en actuaciones de interés común.

j) Y, en general, ejercer cualquier función que tenga relación con las señaladas en los apartado anteriores.

2.– Queda adscrito a la Dirección de Juventud y Acción Comunitaria el Centro Coordinador de Información y Documentación Juvenil de Euskadi. Asimismo, la misma desarrollará las funciones del Observatorio Vasco de la Juventud correspondiente al Plan Joven de la Comunidad Autónoma Vasca.

3.– La Dirección de Juventud y Acción Comunitaria es el órgano llamado a articular las relaciones entre la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi y el Consejo de la Juventud de Euskadi-Euskadiko Gazteriaren Kontseilua. En tal sentido el Director de Juventud y Acción Comunitaria representará al Gobierno Vasco a los efectos establecidos en el artículo 14 de la Ley 6/1986, de 27 de mayo.

II. ATALA

HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDETZA ETA
BERE ZUZENDARITZAK.

13. artikulua.— 1.— Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak Dekretu honen 7. artikuluan ezarritako zereginak izango ditu Eusko Jaurlaritzak euskararen erabilera normalizatzeko bideratu behar duen politikaren artikulazioari eta jarraipenari dagokienez eta gai horretan Eusko Jaurlaritzak sortu eta Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoek erabili beharko dituzten irizpideei dagokienez.

2.— Ildo horretatik, honako betekizun hauek izango ditu bereziki:

a) Arlo honetako zuzendaritzek hizkuntza politika zuzentzeko egindako arauak ezartzeko, aldatzeko edo aplikatzeko proposamen orokor zein berariazkoak koordinatzea eta, hala badagokio, sailburuari igortzea.

b) Euskal Autonomia Erkidego osorako plangintza orokorra osatzea eta jarduera bateratuak burutzeko planak egitea, Jaurlaritzak onar ditzan.

c) Euskararen Aholku Batzordeak egindako proposamen zehatzetan oinarrituta, hizkuntza politikan eskumena duten herri aginte guztien arteko lankidetzaren dinamizatzea eta sustatzea. Horretarako, beharrezko diren ekimenak bultzatuko dira, eta instituzioen arteko lankidetzaren eta koordinazioaren hobetuko duten formulak ikertuko dira.

d) Euskararen Erabilpena Arautzen duen 10/1982 Oinarrizko Legea eta gainerako xedapen osagarriak modu egokian gara eta bete daitezzen begiratzea.

Bere jarduera-eremuan, aginte publikoek euskararen erabilera normalizatzeko xedapen orokorrak, Eusko Jaurlaritzaren jarraibideak eta Euskararen Aholku Batzordearen gomendioak betetzen dituzten begiratu eta ebaluatuko du.

e) Hizkuntza normalizatzeko zereginetan, euskara normalizatzen eta arautzen diharduten erakundeekin harremanak izatea eta, Euskal Herri osoa kontuan izanik, beste lurralde batzuetako era guztietako erakundeekin ere aritzea.

f) Hizkuntza eskakizunak eta horiek aplikatzeko irizpideak zehazteko proposamena osatzea Euskal Funtzio Publikoaren Legean ezarritakoak aintzat izanik. Era berean, irizpide horiei egokitzeko planak egiterakoan eta jarritako helburuak zein neurritan bete diren ebaluatzerakoan Herri Administrazioekin batera aritzea, beti ere, Administrazioetako bakoitzak edo, hala badagokio, Jaurlaritzako sailetako bakoitzak dituen zereginak eta konpetentziak erabat errespetatuta.

SECCIÓN II

DE LA VICECONSEJERÍA DE POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y
DE SUS DIRECCIONES

Artículo 13.— 1.— La Viceconsejería de Política Lingüística ejercerá las funciones señaladas en el art. 7 del presente Decreto en relación con la articulación y seguimiento de la política lingüística del Gobierno Vasco en cuanto a la normalización del uso del euskera, y de desarrollo y establecimiento de los criterios de actuación sobre tal materia que procedentes del Gobierno Vasco, hayan de adoptar las Administraciones Públicas del País Vasco.

2.— En tal sentido, atenderá especialmente las siguientes funciones:

a) Coordinar, y en su caso, elevar a la Consejera las propuestas genéricas o específicas sobre el establecimiento, modificación o aplicación de las normas reguladoras de la política lingüística que elaboren las Direcciones de este área.

b) Elaborar la planificación general y formular planes de actuación conjunta para toda la Comunidad Autónoma, para su aprobación por el Gobierno.

c) Dinamizar e impulsar, a partir de las propuestas concretas que formule el Consejo Asesor del Euskera, las medidas de cooperación entre los poderes públicos con competencia en materia de política lingüística, promoviendo las iniciativas necesarias, e investigando cualquier otra fórmula que optimice la cooperación y coordinación interinstitucional.

d) Velar por el adecuado desarrollo y aplicación de la Ley 10/1982, Básica de Normalización del Uso del Euskera y demás disposiciones complementarias.

En el ámbito de actuación atribuido, prestará especial atención y evaluará el cumplimiento por los poderes Públicos de las disposiciones generales, directrices del Gobierno Vasco y recomendaciones del Consejo Asesor del Euskera, en aras de la normalización del uso del euskera.

e) Mantener en el área de la normalización lingüística las relaciones con las entidades dedicadas a la normalización y a la normativización del euskera y llevar a cabo las actuaciones con todo tipo de entidades de otros territorios en los que se asienta la comunidad lingüística vasca.

f) Elaborar la propuesta para la determinación de los perfiles lingüísticos y de los criterios para su aplicación, a los efectos previstos en la Ley de la Función Pública Vasca. Además, colaborará con las Administraciones Públicas en la elaboración de los planes de adecuación a tales criterios y en la evaluación del grado de cumplimiento de los objetivos establecidos. Todo ello, sin perjuicio de las competencias y atribuciones de cada Administración o, en su caso, de los Departamentos del Gobierno.

3.– Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak, bere zereginak modu egokian bete ahal izateko, beharrezko irizitako dokumentazio guztia eskatuko die bai Eusko Jaurlaritzako sailei, bai gainerako Herri Administrazioei ere, euskararen normalizazioari buruzko ahalik eta informaziorik gehien jasotzeko eta, batez ere, bakoitzak arlo horretan egiten duenaren berri izateko. Horretarako, egoki irizitako komunikazio eta koordinazio bideak garatuko ditu; beti ere, erakunde edo aginte bakoitzak zerbitzu kudeaketan duen zuzeneko erantzukizuna errespetatuta.

4.– Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzari loturik egongo dira honako zuzendaritza zentro hauek:

a) Euskara Planen Zuzendaritza.

b) Koordinaziorako eta Euskara Sustatzeko Zuzendaritza.

5.– Euskararen Aholku Batzordea Kultura Sailari atxikita egongo da, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren bitartez, ekainaren 18ko 156/1996 Dekretuaren arabera.

14. artikulua.– Euskal Autonomia Erkidegoko instituzio publikoetan eta erakunde pribatuetan euskararen erabilera normalizatzeko Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzari esleitutako funtzioak Euskara Planen Zuzendaritzak beteko ditu.

15. artikulua.– Horretarako, Euskara Planen Zuzendaritzak zeregin hauek burutuko ditu:

a) Instituzioetako eta erakunde publiko zein pribatuetako euskara planak diseinatzea, bultzatzea eta martxan jartzea, instituzio eta erakunde horiekin batera.

Horretarako:

– Erakunde publiko eta pribatueta lan-hizkuntzari eta barneko zein kanpoko komunikaziorako hizkuntzari buruzko jarraibideak proposatuko ditu, eta erakunde horietan dauden unitateak zehaztuko ditu.

– Hizkuntza eskakizunak eta derrigortasun datak ezartzeko orduan, bere laguntza emango du eta, erakunde publikoen kasuan, planari buruzko irizpena emanango du. Ildo horretatik, hizkuntza eskakizunak eta datak ezartzearen ondorioz euskara-prestakuntzan sortzen diren beharren azterketa egin beharko da hasieran.

– Instituzio eta erakunde horietako unitateen itzulpenari buruzko irizpideak proposatzea; zeregin hori, legez, beste organo baten eskumena ez bada.

– Kontratazioen, langileen etengabeko prestakuntzaren, argitalpenen, administrazio baimena edo emakida behar duten jardueren, subentzioen eta dirulaguntzen alorrean, hizkuntza irizpideak proposatuko ditu.

– Erakundeetako edo horien unitateetako euskara planak ebaluatzeko behar diren irizpideak zehaztuko ditu eta, irizpide horien arabera, erakundeen edo horien unitateen euskara maila egiaztatuko du.

3.– Para el adecuado ejercicio de sus funciones, la Viceconsejería de Política Lingüística recabará de los Departamentos del Gobierno Vasco y de las demás Administraciones Públicas, cuanta información considere necesaria sobre la normalización del uso del euskera y, especialmente, de las actuaciones que aquéllos realicen en este campo, y establecerá los mecanismos de comunicación y coordinación que estime oportunos. Todo ello sin menoscabo de la responsabilidad directa en la gestión del servicio que pueda corresponder a cada autoridad u órgano.

4.– De la Viceconsejería de Política Lingüística dependerán los siguientes centros directivos:

a) Dirección de Planes de Euskera.

b) Dirección de Coordinación y Promoción del Euskera.

5.– El Consejo Asesor del Euskera, en los términos fijados por el Decreto 156/1996, de 18 de junio, está adscrito al Departamento de Cultura, a través de la Viceconsejería de Política Lingüística.

Artículo 14.– Corresponde a la Dirección de Planes de Euskera, ejercer las funciones encomendadas a la Viceconsejería de Política Lingüística orientadas a la normalización del uso del euskera en las instituciones públicas de Euskadi y en las organizaciones privadas.

Artículo 15.– A tal efecto, la Dirección de Planes de Euskera, entre otras, desarrollará las siguientes funciones:

a) Diseñar, impulsar y poner en marcha los planes de euskera de las instituciones y organizaciones públicas y privadas, en colaboración con las mismas.

Tal cometido conllevará:

– Proponer directrices respecto a la lengua de trabajo y la lengua de las comunicaciones, tanto internas como externas, de las organizaciones públicas y privadas, así como de las unidades que las configuran.

– Asesorar sobre la asignación de perfiles lingüísticos y fechas de preceptividad, y, para el caso de las organizaciones públicas, emitir el informe del plan correspondiente. Tal labor, conllevará un análisis inicial de las necesidades de formación de euskera derivadas de la asignación.

– Proponer los criterios de traducción de las unidades de las citadas instituciones y organizaciones, siempre que esta función no venga legalmente atribuida a otro órgano.

– Proponer criterios lingüísticos en materia de contrataciones, formación continua del personal, publicaciones, actividades sujetas a autorización o concesión administrativa, subvenciones y ayudas.

– Definir los criterios que hagan posible la evaluación de los planes de euskera de las organizaciones y/o de sus unidades de trabajo, y, en coherencia con los criterios definidos, certificar el nivel de euskera de las citadas organizaciones y/o de sus unidades de trabajo.

b) Eusko Jaurilaritzaren Euskara Plana garatzea eta horren koordinazioa eta jarraipena egiteko behar diren neurriak hartzea, sail bakoitzeko eta Euskal Autonomia Erkidegoko instituzio-administrazioako erakunde bakoitzeko arduradunarekin lankidetzan.

c) Plan horiek zenbateraino bete diren ebaluatzeko eta horren jarraipena egiteko lanak burutzea eta planak berrikusteko irizpideak zehaztea eta ezartzea.

d) Instituzioetan eta erakundeetan euskara planak abiarazteko behar diren zerbitzuak antolatzeke, egituratzeko eta funtzionamenduan jartzeko proposamenak egitea. Azpiegitura horiek bultzatzea eta, hala badagokio, horien arduradunak prestatzea, metodologia eta baliabideak egoki erabil ditzaten. Hori guztia bestelako administrazio organoen eskumenen kalterik gabe.

e) Behar diren irizpenak emango ditu Eusko Jaurilaritzan egiten diren xedapen orokorren proiektuek euskararen erabileraren normalizazioan zein eragin duten eta hizkuntza arloan indarrean dagoen araudia betetzen duten argitzeko.

f) Eskatzen duten herritarrei, beren hizkuntza eskubideak babesteko laguntza ematea.

16. artikulua.– 1.– Koordinaziorako eta Euskara Sustatzeko Zuzendaritzak euskara sustatzeko eta sendotzeko analisiak, azterketak eta ikerketak egingo ditu, komunikatzeko eta gizarte bizitzako arlo guztietan kultura sortzeko eta transmititzeko hizkuntza izan dadin.

Horren haritik zeregin hauek beteko ditu:

a) Euskara pixkanaka normalizatzeko eta hizkuntza ondarea aberasteko ekimen pribatuak sustatzea.

b) Euskarak edozein gizarte-arlotan duen erabileraz edo bizi duen egoeraz gizarte sentsibilizatzeko kanpainak edo neurriak garatzea eta koordinatzea.

c) Sailburuordetzak hartzen duen alorrean, egoki ikusten diren azterketak eta ikerketak egitea, zabaltzea eta dokumentatzea. Bereziki:

– Euskararen Aholku Batzordeko Toponimiako Berriazko Batzordeak lanerako behar dituen datuak jasotzea eta tratatzea.

– Bide seinaleetan eta hizkuntza paisajeen, oro har, toponimia normalizatzeko jarduerak gauzatzea, aipatutako berriazko batzordeari ez badagokio.

– Ikerketa soziolinguistikoak bultzatzea eta koordinatzea, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren eskumenen kalterik gabe.

b) Desarrollar el Plan de Euskera del Gobierno Vasco y adoptar las medidas oportunas para la coordinación y el seguimiento del mismo en colaboración con los responsables de cada Departamento y entidad de la Administración Institucional de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

c) Acometer las labores dirigidas al seguimiento y a la evaluación del grado de cumplimiento de dichos planes, así como a la definición y establecimiento de los criterios para su revisión.

d) Formular las propuestas de organización, estructura y funcionamiento de los servicios requeridos para la puesta en marcha de los planes de euskera de las instituciones y organizaciones. Potenciar estas infraestructuras y formar, en su caso, a los agentes responsables de las mismas en la práctica y uso de la metodología y de las herramientas necesarias, sin perjuicio de las competencias atribuidas a otros órganos administrativos.

e) Informar cuantos proyectos de disposiciones de carácter general se elaboren en el seno del Gobierno Vasco respecto a su incidencia en la normalización del uso del euskera y a su adecuación a la normativa vigente en materia lingüística.

f) Asesorar a los ciudadanos que así lo soliciten, respecto de la tutela de sus derechos lingüísticos.

Artículo 16.– 1.– La Dirección de Coordinación y Promoción del Euskera desarrollará las funciones de análisis, estudio e investigación, dirigidas a la promoción y consolidación del euskera como lengua de comunicación y generadora y transmisora de cultura en todas las áreas de la vida social.

En tal sentido, desarrollará las siguientes funciones:

a) Las actuaciones de promoción de las iniciativas privadas dirigidas a la progresiva normalización del euskera y al enriquecimiento del patrimonio lingüístico.

b) El desarrollo y coordinación de campañas o medidas dirigidas a la sensibilización social relativas al uso o situación del euskera en cualquier ámbito social.

c) La documentación, realización y divulgación de los estudios e investigaciones que, en el ámbito atribuido a la Viceconsejería, se consideren adecuados, y particularmente:

– La obtención de datos y su tratamiento preparatorio para el ejercicio de las funciones que a la Comisión Especial de Toponimia del Consejo Asesor del Euskera correspondan.

– Las actuaciones oportunas en materia de normalización toponímica en la señalización viaria y el paisaje lingüístico en general, que no correspondan a la referida Comisión Especial.

– El impulso y coordinación de las investigaciones sociolingüísticas, sin perjuicio de las atribuciones del Departamento de Educación, Universidades e Investigación.

d) Euskararen corpusa estandarizatzeko eta modernizatzeko lanak planifikatzea eta koordinatzea eta horien jarraipena egitea.

e) Euskararen Erabilera Sustatzeko Plan Orokorra ebaluatzeko eta aldiro eguneratzeko eta horren jarraipena egiteko gauzatu behar diren ikerketak eta analisiak egitea.

f) Hizkuntza politikan eskumena duten aginte publikoen arteko lankidetzak gauzatzeko jarduerak abiaraztea, guzti horien jarduera koordinatua izan dadin. Hori lortzeko, instituzioen arteko koordinazio batzordeak eratzen ahalginduko da, Euskararen Aholku Batzordeak egin ditzan proposamen konkretuetatik abiatuta.

g) Euskararen Aholku Batzordeko berariazko batzordeen eta batzorde horren Idazkaritzaren lanak koordinatzea eta horien jarraipena egitea.

h) Hizkuntza plangintzaz diharduten Babespeko Ikerketa-Erakundeekiko Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak dituen zereginak burutzea eta harremanak zaintzea.

2.- Helduen Alfabetatze Berreuskalduntzerako Erakundea (HABE) Kultura Sailari atxikita egoteak Sailari dakartzkion zereginak burutzea.

3.- Kultura Saileko berariazko estatistika-organoa den aldetik, apirilaren 23ko 86/1996 Dekretuan esleitutako zereginak burutzea.

IV. KAPITULUA ZERBITZU ZUZENDARITZA

17. artikulua.- 1.- Zerbitzu Zuzendaritza sailburuaren esanetara egongo da zuzen-zuzenean eta Kultura Sailaren eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren kudeaketa zerbitzuen arteko harremanak bideratuko ditu, zeregin hori berariaz beste erakunde baten esku ez badago behintzat.

2.- Zerbitzu Zuzendaritzari dagozkio honako egin-kizun hauek:

a) Saileko organoek lege-proiektuak eta arauzko xedapenak egin behar dituztenean, horiekin batera lan egitea eta laguntza teknikoa ematea; bereziki, Sailaren eta horri atxikitako administrazio instituzionaleko erakundeen aurrekontuen aurreproiektua egin behar dutenean.

b) Sailaren gastuak baiestea, indarrean dagoen legeriaren arabera, eta, Sailaren kanpo-organoen aurrean, aurrekontuetako egiterapen faseak izapidetzea.

d) Planificar, coordinar y efectuar el seguimiento de las labores de estandarización y modernización del corpus del euskera.

e) Llevar a cabo los estudios y análisis necesarios para el seguimiento, evaluación y actualización periódica del Plan General de Promoción del Uso del Euskera por el órgano al que corresponda.

f) Acometer las actuaciones para materializar la cooperación entre los Poderes Públicos con competencia en materia de política lingüística, para alcanzar una actuación coordinada de los mismos. A tal efecto, a partir de las propuestas concretas que formule el Consejo Asesor del Euskera, promoverá el establecimiento de las correspondientes comisiones de coordinación interinstitucional.

g) Realizar la coordinación y seguimiento de la labor de las comisiones especiales del Consejo Asesor del Euskera y las labores de Secretaría del mismo.

h) Acometer las funciones y relaciones que respecto a las Entidades Tuteladas de Investigación aplicada a la planificación lingüística, vengan atribuidas a la Viceconsejería de Política Lingüística.

2.- Desarrollar las actuaciones que al Departamento de Cultura correspondan por razón de la adscripción al mismo del Organismo Autónomo Administrativo, Helduen Alfabetatze Berreuskalduntzerako Erakundea / Instituto de Alfabetización y Reeskaldunización de Adultos (HABE).

3.- Ejercer las funciones atribuidas por Decreto 86/1996, de 23 de abril, en calidad de órgano estadístico específico del Departamento de Cultura.

CAPÍTULO IV LA DIRECCIÓN DE SERVICIOS

Artículo 17.- 1.- La Dirección de Servicios, bajo la directa dependencia de la Consejera, encauzará las relaciones del Departamento de Cultura con los servicios de gestión centralizada de la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi, salvo que expresamente vinieran atribuidas a otro órgano del mismo.

2.- Corresponde a la Dirección de Servicios el ejercicio de las siguientes funciones:

a) Colaborar y prestar la asistencia técnica necesaria en la elaboración de los proyectos de Ley y disposiciones reglamentarias elaborados por los distintos órganos del Departamento, en particular en la elaboración y coordinación del anteproyecto de presupuesto del Departamento y entidades de la Administración institucional adscritas al mismo.

b) La autorización de los gastos del Departamento conforme a lo dispuesto en la legislación vigente, y la tramitación de las diferentes fases de ejecución presupuestaria ante órganos externos del Departamento.

c) Sailaren esku dauden gai eta arlo guztietan aholkularitza juridikoa ematea eta Sailaren jarduera arloetan eraginik izan dezaketen lege-arauak aztertzea.

d) Sailak eskuratutako informatika-gaiak eta saileko informatika zerbitzuak era koordinatu eta integratu batean kudeatzeko eta, arlo horretan, Eusko Jaurlaritzako baterako organoekin harremanetan jartzeko burutu behar diren egintzak gauzatzea.

e) Fundazioen arloan Sailaren esku utzitako zeregin guztiak bereganatzea, baldin eta horretarako berariaz erakunde konkretu bat izendatzen ez bada.

f) Sailaren kontratazio espedienteak begiratzea eta orokorrak direlako sailburuorde jakin bati ez dagozkion arloetan, kontratazio mahai gisa jardutea.

g) Sailak dituen ondasun guztiak direla-eta Ondare eta Kontratazio Zuzendaritzarekin izan beharreko harremanak bateratzea, Euskal Ondareari buruzko Legeak dioen bezala. Era berean, Sailaren izenean dauden ondasun eta eskubideen Inbentarioa osatzen laguntzea.

h) Saileko langileria politika proposatzea, langileriaz arduratzea eta, beste erakunde batzuen eskumena ez denean, arlo honi dagozkion gai guztiak kudeatzea. Ildo horretatik, Euskal Funtzio Publikoaren uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 10. artikuluan aipatzen diren eskumenak izango ditu, Dekretu honetako 4.2 artikuluan aipatutakoak salbu.

i) Administrazioa eraldatzeko eta eraberritzeko eskumena duen organoaren jarraibideak eta ekimenak gauzatzeko eta garatzeko behar den sostengua bermatzea; gai horretan eta Sailaren jarduera eremuaren barruan, Jaurlaritzaren programan aurreikusitakoa bete dadin.

j) Orokorrak eta komunak izateagatik Saileko beste organo baten ardura ez diren sustapen programak buztatzea.

k) Sailaren antolaketa hobetzeko neurriak proposatzea eta gauzatzea eta aurreko idatz-zatietan aipatutako funtzioen ildoari jarraituz esleitzen zaizkion gainontzeko zereginak betetzea.

3.- Lurralde historikoetako kulturako lurralde zerbitzuak ere Zerbitzu Zuzendaritzari atxikita egongo dira. Zerbitzu horiek Kultura Sailari dagozkion alorretan egiten diren kontsultak edo dokumentuak erantzungo dituzte, edo organo eskudunari igorriko dizkiote. Halaber, alor horretan esleitzen zaizkion zereginak beteko dituzte.

c) Proporcionar asesoramiento jurídico en cuantas materias vengan atribuidas al Departamento y examinar las disposiciones normativas que por su contenido pudieran afectar a las áreas de actuación del mismo.

d) Las actuaciones necesarias para la gestión coordinada e integrada de los servicios y adquisiciones informáticas del Departamento y las relaciones que en esta materia correspondan con los órganos unitarios del Gobierno Vasco.

e) Asumir cuantas funciones le vengan atribuidas al Departamento en materia de Fundaciones, siempre que expresamente no se determine un órgano concreto del mismo.

f) Revisar los expedientes de contratación del Departamento, y ejercer como órgano de contratación en aquellas materias que por su generalidad no correspondan a uno u otro Viceconsejero.

g) Centralizar las relaciones que en virtud de la Ley de Patrimonio de Euskadi se requieran con la Dirección de Patrimonio y Contratación, respecto a todos los bienes de los que disponga el Departamento. Asimismo, colaborará en la confección del Inventario Patrimonial relativo a los bienes y derechos adscritos al Departamento.

h) Proponer la política de personal del Departamento, ejercer la jefatura de personal y gestionar los asuntos relativos a esta materia que no sean competencia de otros órganos. En tal sentido, ejercerá las competencias que enumera el artículo 10 de la Ley 6/1989, de 6 de julio, de Función Pública Vasca, con excepción de las señaladas en el artículo 4.2 del presente Decreto.

i) Garantizar el soporte necesario para desarrollar y ejecutar las iniciativas y directrices dictadas por el órgano competente en materia de Reforma y Modernización de la Administración en orden a desarrollar las previsiones del programa de Gobierno relativos a la citada materia en el ámbito de actuación del Departamento.

j) Impulsar los programas de fomento que por su carácter general y común no correspondan a otro órgano del Departamento.

k) Proponer y ejecutar las medidas dirigidas a mejorar la organización del Departamento y cuantas otras funciones le sean encomendadas en relación con las enumeradas en los apartados anteriores.

3.- Quedan adscritos a la Dirección de Servicios los servicios territoriales de Cultura existentes en cada uno de los Territorios Históricos, los cuales atenderán o darán traslado al órgano competente de cuantas consultas o documentos se les presenten dentro de las áreas que corresponden al Departamento de Cultura. Asimismo ejercerán las funciones que les sean asignadas dentro de tal ámbito.

XEDAPEN GEHIGARRIAK

Lehena.— Sailburuordeek eta zuzendariak, gaixo jar-tzeagatik zein beste edozein arrazoiengatik, beren kar-guetan jarduterik ez badute, edo kargua hutsik bada-go, honako era honetara jokatu da beren zereginak betetzerakoan:

a) Sailburuordeek dituzten zereginak eta eskumenak, beren menpe dauden zuzendariak beteko dituzte dekre-tu honetan ezarritako ordena errespetatuz.

b) Zuzendariak emandako zereginak eta eskumenak, dagokion sailburuordeak beteko ditu.

c) Zuzenean sailburuaren menpe dauden zuzendarien ordezkapena txandaka egingo da, salbu eta zehapen es-pedienteak hasarazi edo erabaki behar direnean, kasu horretan sailburuak erabakiko baitu zer egin.

Bigarrena.— Lege-arauetan Gazteria eta Kirol sail-buruordea edo Kultura sailburuordea aipatzen badira, aipamen hori Kultura, Gazteria eta Kirol sailburuor-deari dagokiola ulertu beharko da. Ildo beretik, edo-zein arau testutan Hizkuntza Politikarako Idazkaritza Nagusia aipatzen den bakoitzean, Kultura Saileko Hiz-kuntza Politikarako Sailburuordetzaz ari direla ulertu-ko da eta beren titularrekin ere gauza berbera gertatu-ko da.

Hirugarrena.— Kultura Sailari dagozkion zehapen-espedienteen instruktoea Sailburuak berak izendatu-ko du, zeregin hori esleituta duten ataletako teknika-rien artean.

Hortaz, espedienteari hasiera ematen zaionean, ho-rrren berri emango zaio sailburuari eta horrek instruk-torea izendatuko du teknikarien artean, txandaka, es-pedienteari hasiera ematerakoan antzintasun handie-na duenetik hasita.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Xedapen hauek indargabetzen dira: Kultura Saila-ren Egitura Organikoa ezartzen duen maiatzaren 30eko 281/1995 Dekretua, Antzerkirako Aholku Batzordea sortzen duen abenduaren 15eko 381/1987 Dekretua, Zinemagintzarako Aholku Batzordea sortzen duen abenduaren 15eko 377/1987 Dekretua, Dantza eta Folklorerako Aholku Batzordea sortzen duen abendu-aren 15eko 378/1987, Musikarako Aholku Batzordea sortzen duen abenduaren 15eko 380/1987 eta Dekre-tu honetan xedatutakoaren aurka doazen gainontzeko xedapenak.

DISPOSICIONES ADICIONALES

Primera.— En los supuestos de vacante, ausencia o enfermedad de Las personas titulares de las Viceconsejerías y Direcciones se seguirán las siguientes reglas de suplencia:

a) Las competencias y funciones atribuidas a las Vi-ceconsejerías serán ejercidas por las Directoras o Direc-tores de ellos dependientes, por el orden en que apare-cen en el presente Decreto.

b) Las competencias y funciones atribuidas a las Di-recciones serán ejercidas por el Viceconsejero o Vicecon-sejera correspondiente.

c) La suplencia de las personas titulares de las Di-recciones que dependen directamente de la Consejera se realizará de manera alternativa, salvo en la incoación y resolución de cualquier expediente sancionador que les competa, en cuyo caso se estará lo que determine la Consejera.

Segunda.— Cuantas referencias normativas aparezcan efectuadas al Viceconsejero de Juventud y Deportes o al Viceconsejero de Cultura, habrán de entenderse efec-tuadas al Viceconsejero de Cultura, Juventud y Depor-tes. En este mismo sentido las referencias que en cual-quier texto normativo se efectúen a la Secretaría Gene-ral de Política Lingüística, se entenderán referidas a la Viceconsejería de Política Lingüística del Departamen-to de Cultura y de igual manera a sus respectivos titu-lares.

Tercera.— El instructor de los procedimientos san-cionadores que al Departamento de Cultura correspon-den, será designado por la Consejera, entre el personal técnico de las dependencias que tengan atribuida tal función.

A tal efecto, se dará traslado del acto de incoación a la Consejera, quien en turno sucesivo designará al miembro del personal técnico que corresponda con ma-yor antigüedad al momento de la incoación del corres-pondiente expediente.

DISPOSICIÓN DEROGATORIA

Quedan derogados, el Decreto 281/1995, de 30 de mayo, por el que se establece la estructura orgánica del Departamento de Cultura, el Decreto 381/1987, de 15 de diciembre, por el que se crea la Junta Asesora de Tea-tro, el Decreto 377/1987, de 15 de diciembre, por el que se crea la Junta Asesora de Cinematografía, el De-creto 378/1987, de 15 de diciembre, por el que se crea la Junta Asesora de Danza y Folklore, el Decreto 380/1987, de 15 de diciembre, por el que se crea la Jun-ta Asesora de Música y cuantas otras disposiciones re-glamentarias se opondan a lo dispuesto en el presente Decreto.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa.— Dekretu hau garatzeko hartu beharreko erabaki guztiak hartzeko ahalmena izango du Kultura sailburuak.

Bigarrena.— Dekretu hau EHAA n argitaratzen den egunaren biharamunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 1999ko urriaren 19an.

Lehendakaria,

JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

Kultura sailburua,

M.^a CARMEN GARMENDIA LASA.

Agintariak eta Langileria

Izendapenak, Egoerak eta Gorabeherak

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

Zk-4669

AGINDUA, 1999ko urriaren 7koa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuarena. Agindu honen bidez, 1995eko ekainaren 9ko Agindua —Bigarren Hezkuntzako Irakasleen, Lanbide Heziketako Irakasle Teknikoen eta Hizkuntza Eskola Ofizialetako Irakasleen Kidegoetako irakasle funtzionarioen lekualdatze-lehiaketaren behin betiko emaitza argitaratzen duena— aldatzen da.

María Jesús Elorza Zuriarrain andreak administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu du Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuaren 1995eko ekainaren 9ko Aginduaren aurka (Agindu horren bidez, Bigarren Hezkuntzako Irakasleen, Lanbide Heziketako Irakasle Teknikoen eta Hizkuntza Eskola Ofizialetako Irakasleen Kidegoetako irakasle funtzionarioen lekualdatze-lehiaketaren behin betiko emaitza argitara eman zen). Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiak errekurtso horri buruz epaia eman du, eta agindu horren aurka aurkeztutako errekurtsoa onetsi egin du; adierazi duenez, «Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuaren 1995eko ekainaren 9ko Agindua (1995eko ekainaren 12ko EHAA n) —1994ko urriaren 13ko Aginduaren bidez (1994ko urriaren 18ko EAOn) deituriko Bigarren Hezkuntzako Irakasleen, Lanbide Heziketako Irakasle Teknikoen eta Hizkuntza Eskola

DISPOSICIONES FINALES

Primera.— Se faculta a la Consejera de Cultura para dictar las disposiciones necesarias para el desarrollo del presente Decreto.

Segunda.— El presente Decreto entrará en vigor al día siguiente de su publicación en el BOPV.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 19 de octubre de 1999.

El Lehendakari,

JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

La Consejera de Cultura,

M.^a CARMEN GARMENDIA LASA.

Autoridades y Personal

Nombramientos, Situaciones e Incidencias

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

Nº-4669

ORDEN de 7 de octubre de 1999, del Consejero de Educación, Universidades e Investigación, por la que se modifica la Orden de 9 de junio de 1995, por la que se hace pública la resolución definitiva del concurso de traslados de los funcionarios docentes de los Cuerpos de Profesores de Enseñanza Secundaria, Profesores Técnicos de Formación Profesional y Profesores de Escuelas Oficiales de Idiomas.

Habiéndose interpuesto por Doña María Jesús Elorza Zuriarrain, recurso contencioso-administrativo contra la Orden de 9 de junio de 1995, del Consejero de Educación, Universidades e Investigación, por la que se hace pública la resolución definitiva del concurso de traslados de los funcionarios docentes de los Cuerpos de Profesores de Enseñanza Secundaria, Profesores Técnicos de Formación Profesional y Profesores de Escuelas Oficiales de Idiomas, el Tribunal Superior de Justicia del País Vasco ha dictado sentencia estimando el recurso interpuesto contra dicha Orden declarando «no ajustada a derecho la Orden de 9 de junio de 1995, del Consejero de Educación, Universidades e Investigación, publicada en el BOPV de 12 de junio de 1995 por que se hace pública la resolución definitiva del concurso de traslados de los funcionarios docentes del Cuerpo de Enseñanza convocado por Orden de 13 de octubre de 1994